

**41/2018 IDAZKARI NAGUSIAREN TXOSTENA****Gaia: Euskararen erabilera normalizatzeko plana 2018-2022**

JURDANA URIARTE LEJARRAGAk, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren arabera egin dut hurrengo

**TXOSTENA****1. Aurrekariak**

**Lehena.-** Idazkaritza honetan euskararen erabilera normalizatzeko plana aurkeztu da Osoko Bilkurak onartzeko.

**Bigarrena.-** 2017ko azaroaren 17an idazkari honek Bermeoko udaleko euskararen erabilerari buruzko txostena egin zuen (I. eranskina. 6/2017 txostena).

**1. Oinarri juridikoak****1.1. Aplikagarria den araudia**

- 1992ko azaroaren 5eko Hizkuntza Erregionalen eta Gutxituen Europako Gutunarekin

- 1978ko abenduaren 27ko Espainiako Konstituzioa

- Abenduaren 18ko 3/1979 Arau organikoz onartutako Euskal herriarentzako Autonomi Estatutua

- Urriaren 1eko 39/2015 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea

- Apirilaren 7ko 2/2016 Toki Erakundeen Euskadiko Legea

- Azaroaren 24koa 10/1982 Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa Legea

- Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duenak

- Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duena



- 1955eko ekainaren 17ko Toki erakundearen Zerbitzuen Araudia
- Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorra

## 1.2. Azterketa juridikoa

Euskaren erabilera normalizatzeko planaren proposamena interpretatu beharko da orokorrean 2017ko azaroaren 17an idazkari honek Bermeoko udaleko euskararen erabilerari buruz egindako txostenaren arabera. Eta konkretuki hizkuntza irizpideei buruzko 6. puntuan, hurrengo ataletan:

- 3.1.1. "Zigiluak euskaraz egongo dira". Zenbait kasutan, salbuespenak egon daitezke, herritarren gainerako hizkuntza eskubideak errespetatzeko orduan.
- 6.2.1. lehenengo paragrafoan "...argi utziko du kontratatuko den enpresak udalean euskaraz aritu beharko duela".
- 6.2.1. atalean azaltzen denetan kontratua sinatzean "euskararen baldintza" sartuko edo zehaztuko dela.
- 6.2.1. atalean, diru-laguntzak jasotzean, "udalak kontuan izango du diruz lagunduko den jardueraren hizkuntza..."
- Azken oharrean "ez dela baztertzeko beste hizkuntzaren bat ere erabiltzea" "beti" jartzen diren kasuak ere sartu beharko lirateke. Adibidez, irizpide orokorra beti euskara erabiltzea da.

Azken finean, herritarren hizkuntza eskubideak bermatu behar dira eta hizkuntza dela-eta inor ez gutxietsi, ezta bereizkeriarik sortu.

Gainera, herri-aginteei emandako arau-xedapen, ebazpen ofizial, inprimaki edo idazki-eredu ofizialak bi hizkuntzetan idatzita egon beharko direla. Administrazioaren jakinarazpen eta adierazpenak ere bi hizkuntzetan idatzita egon beharko dira, salbu eta interesdun partikularrek Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako bat berariaz erabiltzea aukeratzen badute.

Kontratazio, diru-laguntza eta baimenen kasuetan hizkuntza irizpideak eskatzean kontuan izan behar da ez gutxietsia inor eta berdintasun printzipioa bermatzea. Hortaz, justifikatutako eta jurisprudentiak onartutako kasuetan izan ezik, ezingo da inor behartu aipatu diren hizkuntza irizpideak betetzera.



### 3. Ondorioak

Bermeoko Udalak euskara babestu eta normalizatzeko lana egin behar du, beti ere herritarren hizkuntza eskubideak bermatuz eta hizkuntza dela-eta inor ez gutxietsiz, ezta bereizkeriarik sortuz. Hori horrela, euskararen erabilera normalizatzeko planaren proposameneko aipatutako atalak argitu beharko dira edota idazkariaren 2017ko azaroaren 17ko txostenean ezarritakoa errespetatuta interpretatu.

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Hori horrela, Osoko Bilkurak egoki deritzona erabakiko du.

Jurdana Uriarte Lejarraga

Idazkari nagusia

Jasota

Euskera Saileko zinegotzi delegatua,

Alkatea,

Juan Karlos Agirre Santa Maria

Idurre Bideguren Gabantxo

*Oh. Orri oinean sinatzaileak eta data*



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E20001872100E0P1A2W7A5B7

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI  
NAGUSIA - 19/12/2018  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 19/12/2018  
14:59:51

EXPEDIENTE ::  
2018IDA\_DOK0225  
Data: 19/12/2018  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

